

Banaketa eta komunikazio kanalak

Enpresa bezala, gure helburua irabazi maximoak izatea denez, hauek lortzeko hainbat bide sortu ditugu, ahalik eta produktu gehien saltzea, baina momentuz gure produktuak online bidez eskainiko ditugunez, batetik, bezeroek gure markaren berri izan dezaten webgune ofiziala eta sare sozial ezberdinak erabiliko ditugu. Bestetik, guk sortutako produktuak bezeroek jaso ditzaten, bide desberdinak eskainiko ditugu.

Hasteko, hasiera batean gure produktuak online bidez bakarrik erosi ahalko direnez, webgune bat sortuko dugu. Bertan, hainbat arlo egongo dira: gure markaren (Greenweave) inguruko informazioa, sortzaileen inguruko arlo bat; hemen, gure ideia azaltzen da, hau da, nola bururatu zitzaigun GreenWave sortzea eta azkenik eta garrantzitsuenak, produktuen arloa; hemen, hauen argazkiak igoko ditugu, produktu hauen osaera azalduko dugu, bezeroek haien **neurria** hautatu ahal izango dute eta noski produktu hauen prezioa agertuko da. Webgunearen bitartez, produktuen eskaera egin ahal izango da eta bertan jarriko du bidalketak zenbateko iraupena izango duen (normalean 48h-72h).

Gainera, aurretik esan bezala hasieran gure produktuak webgunean bakarrik eskuragarri egongo direnez, bezeroen arreta bereganatzeko eta hauek gure marka ezagutu dezaten, hainbat sare sozial erabiliko ditugu: Instagram eta tiktok. Hauetan, "post"-ak eta bideoak igoko ditugu, bide batez gure produktuak erakusteko. Gainera, gure produktua promozionatuko duten influentzerrak kontratatuko ditugunez, produktuak erakutsiko dituzten bideoak igoko ditugu, jendeak hauetaz jakin dezan. Influentzerrak jarraitzaile asko dituztenez, jende askok ikusiko ditu gure produktuak eta horrela, askoz salmenta gehiago izango ditugu. Gainera, sare sozialetan zuzenean produktu hauek erosteko aukera egongo da, noski, produktua bideoetan agertzen bada. Hori gutxi balitz, sare sozialen bidez, ditugun deskontuetaz jakinaraziko ditugu bezeroak eta webgunera sartzeko linka egongo da, bezeroentzat errazago izateko eta gure profiletik, webgunera eramaten duen link bat egongo da, bezeroentzat errazago izateko.

Bigarrenik, denda fisikoa ez dugunez, bezeroei haien eskaerak helarazteko, bi aukera proposatuko ditugu: Batetik, produktuak etxean jasotzeko aukera eskaintzen dugu baina honek gastu handiagoak izango ditu (2,99€ gehiago). Banaketa hau, Seur enpresekin eramango dugu aurrera eta prozesua honako hau izango da: Guk prest utziko ditugu bezeroen eskaerak eta Seur enpresako kamioiak hauek jasoko dituzte eta norberaren etxetara eramango dituzte produktuak. Bestetik, bilketa puntua eskaintzen dugu eta hau Correos enpresarekin egingo da. Aukera hau izango da errentagarriena, izan ere, doain izango delako.



Bukatzeko, gure bidalketa guztiak 48h-72h artean entregatuko ditugu baina 24h-tan jasotzeko aukera ere eskainiko dugu 7€ ordainduaz. Egia da opor batzuetan, bereziki gabonetan, bidalketaren iraupena piskat luzatu daitekela, eskaera handia izango dugulako.